

“Musikoterapia”, behar bereziak dituzten hurrekin.



IRAKASLEA: Mari Jose Garmendia

Helburu orokorrak:

Ikasteko zailtasunak dituzten hurrei eta musikarekiko kontaktuaz goza dezaketenei zuzendua dago.

Arazo multzo zabalari egingo dio leku: autismoa eta garapen- nahasmenduak, hiperaktibitatea eta arreta falta, adimen-atzerapena, down sindromea, zentzumen-urritasuna (gorreria eta itsutasuna), defizit psikomotorrak... desgaitasun larrienetatik arinetaraino, musikarekin goza dezakeen edonorentzat.

Musikaterapiak musika du lan-tresnatzat. Bere ezaugarri garrantzitsuena ez-ahozkoa izatea dela esan behar da, eta ondorioz komunikabide unibertsala bihurtzen da. Musikak pertsonen gorputzean eta adimenean barneratzeko gaitasuna du, edozein izanda ere pertsonen baldintzak edo adimen-mailak.

Soinua, musika eta mugimendua helburu terapeutikoak lantzeko erabiliko dira, barruko eta kanpoko munduarekiko komunikazio kanalak irekitzeko. Ez dira musika ikasketak; helburua haurra estimulatzea eta musika-jarduerekin lan egitea da: buru- eta koordinazio-fisikoa, arreta eta memoria, hizkuntza ikaskuntza, oreka emozionala, trebetasun sozialak eta sormena.

Talde txikiak antolatuko dira, eta kasu batzutan norbanakoekin soilik ere, helburu terapeutiko horiek lantzeko. Horretarako talde lana aberasgarria izango da haurraren gizarteratzean eta integrazioan laguntzeko.

Informazioa:

- **Hasiera:** Azaroa.
- **Amaiera:** Maiatza.
- **Iraupena:** 22 saio, ordu batekoak.

Matrikula epea:

Urriaren 9tik 23ra

- **Tasa:**

Matrikula 40,14€

Hilero 40,14€

(6 Hilabete)

Hobariak daude.

Lekua:

**“Tomas Garbizu” Lezoko
Udalaren MUSIKA ESKOLA**

Telefono zenbakia: 943 529999.

tgarbizume@lezo.net

Arretxene kalea, 3 LEZO



TOMAS GARBIZU
LEZOKO UDALAREN MUSIKA ESKOLA
Tel: 943 52 99 99 • tgarbizume@lezo.net